

1. Fitsa

Harrapaketa Egutegia



Arrantza
Eskola
Escuela de Pesca



Izena

Adina Data

Arrantza-tokia

Baldintza meteorologikoak

Ibaiaren baldintzak

(arrea, garbia, ur asko edo gutxi, ur biziak edo lasaiak, usainak, eta abar)

Harrapaketa ordua	Espeziea	Luzera	Pisua	Askapen ordua	Oharrak



Nola lagundu dezakegu arrantzaleok Arrantzaren kudeaketa iraunkorrean?

Gure HARRAPAKETA ORRIA betetzen badugu eta Aldundiko Nekazaritza Departamentura bidaltzen badugu ibaiaren tarte horretan dagoen arrain kopuruari buruzko datuak jasoko dituzte eta aldi berean zenbat arrantzale aritu daitezkeen finkatu.

Garrantzitsua da jakitea neurri txikiko zenbat arrain dauden ibai-tarte jakin batean, nahiz ez harrapatu, horren presentziak adieraziko baitigu IBAIK BEREZ BIRSORTZEKO gaitasuna duela. Horregatik, arrantzaleek eskainitako datuek ibaiaren berezko ugalketa naturaletik sortutako arrain kopurua ezagutzeko balio izango digute.



2. Fitsca


Arrainaren Anatomia



Arrantza
Eskola
Escuela de Pesca



Osa ezazu marrazki hau, bineten barrualdean zati desberdinen izenak idatziz



Ahoa

Operkulua

Bular-hegatsa

Bizkar-hegatsa

**Hegats
adiposoa**

Sabel-hegatsa

Uzki-hegatsa

Isats-hegatsa



Egin ezazu gurutze bat erantzun egokian

Arrainen **odola** nolakoa da? Hotza Beroa

Zein da beren **arnasbidea**? Sudurra Zakatzak Ez dute arnasten

Nola **igeri** egiten dute? Igeri-maskuriari esker Flotagailu bati esker

Arrainek badute **usaimenik**? BAI, oso garatua EZ, uretan ez da beharrezko zentzumen hau



Zergatik labaintzen zaizkigu arrainak eskuekin harrapatzen saiatzen garenean? Beren azalak muki bat jariatzen duelako

Muki horri esker urarekin duten marruskadura txikiagoa da eta arraina gezi bat bezala eta indar gutxiago eginda mugitu daiteke. Egia Gezurra

Muki horrek zaildu egiten die bizkarroiei arrainaren azalean itsastea. Egia Gezurra

Mukiak uretan egon litezkeen substantzia toxikoetatik babesten du arraina. Egia Gezurra

3. Fitxa

Arrain Motak



Arrantza
Eskola
Escuela de Pesca



Lotu itzazu gezien bidez arrainak beren deskribapenarekin


AMUARRAIN ARRUNTA ibai eta aintziretako ur hotz eta garbietan topatuko dugu nagusiki. Bere hegatsak ez dute hezurrik, eta espezie guztiek hegats adiposo bat dute bizkaraldean, isatsetik hurbil. Arrain harraparia da: intsektuen arrak eta intsektu helduak harrapatzen ditu ur azalean hegan dabiltzanean ("euliak"), baita krustazeoak eta ornogabe bigunak ere, zizareak esaterako.

ORTZADAR AMUARRAINA birpopulatu egin delako topatzen dugu ibaietan. Gorputzaren formari erreparatuta ibai-amuarrainaren antzekoa da, baina more koloreko zerrenda bat du saihetsean eta tanto beltzak dituen saihets-hegats bat. Ur garden eta ongi oxigenatuetan garatzen da ongien. Bere elikadura askotarikoa da, baina ornogabeez elikatzen da batez ere.

BARBOA, goiko ezpainenetik ateratzen zaizkion bibote edo bizarrengatik deitzen zaio horrela. Tamaina handia eta gorputz sendoa duelako nabarmentzen da, eta ezkata handiz estalia dago. Bizkarrean oliba antzeko berde kolorea, urrearen distira saihetsetan eta bular horixka du. Omniborua da eta hondoan bizi da, bertatik biltzen baitu janaria ahoaren bitartez.

LOINA tamaina erdiko arrain bat da, 20 eta 30 cm bitartekoa, eta gorputz luzexka eta buru txikia du. Kolore nabar grisaxka du bizkaraldean, eta zilarraren antzekoa bularraldean. Saihetsean zerrenda ilun bat izaten du maiz. Omniborua da, barboa bezala, baina landareak dira nagusi bere dietan. Uretatik kanpora jauzi egiten du ur azalean dabiltzan intsektuak harrapatzeko. Espezie harrapariak sartzeak eta bere habitata hondatzeak baina, bereziki, kutsadurak galzorrira eraman dute espezie hau.

ANGIRA arrain luzexka bat da, sugearen forma duena. Helduak Sargazoan Itsasora joaten dira ugaltzera. Ale gazteenek, angulek, milaka kilometro egiten dituzte gure ibaietaraino iristeko, eta bertan, berriro heldu bihurtzen dira. Angulak oso janari estimatua dira. Neguan harrapatzen dira, bidaia luzearen ondoren ibaian gora abiatzen direnean.





4. Fitsa

Nerbioi Ibaia



Arrantza
Eskola
Escuela de Pesca

Adieraz ezazu Nerbioi ibaiaren irudi hauetako bakoitzean zein ibai-tartetakoak diren. **GOIKOA, ERDIKOA EDO BEHEKOA**



Ibaiko espezie guztiek, hala ornogabe txiki eta ur-landareek nola ornodun handi eta ibai-bazterreko zuhaitzek, garrantzi handia dute eta elkarrekin lotuak daude, **IBAICO EKOSISTEMA** osatzen dutelako, eta horrexegatik, ibaiak bere edozein tartetan jasaten duen eragina ibaiaren ibilgu osoan zehar nabarituriko da. Marrazki honetan **gezien bidez** adieraz ezazu zein den bertan ageri diren espezie desberdinen arteko harremana.

